

“EUROEUSKUALDE BIO- OSASUN” SARIA 2023

BALDINTZA-AGIRIA

01	HELBURUA	2
02	LURRALDE HAUTAGARRIAK	3
03	GAIAK	3
04	ERAKUNDE ONURADUNAK	4
05	ZENBATEKOA ETA FINANTZAZIOA	4
06	AURKEZPENA ETA EGUTEGIA	4
	A · EGUTEGIA	4
	B · HAUTAGAITZA ETA DOKUMENTUAK	4
07	EBALUAZIO-PROZEDURA	5
08	HAUTAKETA-IRIZPIDEAK	5
	A · AURRE-HAUTAKETAREN FASEA	5
	B · Pitching FASEA	6
09	SARIA EMATEA	6
10	KOMUNIKAZIOA	6
11	AUZIAK	6
12	INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA	6

AECT Euroeskualde Akitania Berria Euskadi Nafarroa 2011ko abenduaren 12an sortutako *Lurralde Lankidetzako Europako Elkartea* da. Mugaz gaindiko eta euroeskualdeko lurraldearen garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala eta, aldi berean, lurralde horren barruko trukeak sustatzea du helburu.

“Euroeskualde BIO OSASUN” lehen sariak osasun-sektorean lankidetzaproiektuak sustatu nahi ditu Akitania Berria eskualdearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean.

01 | HELBURUA

Dokumentu honen helburua “Euroeskualde BIO OSASUN” lehen sariaren baldintzak definitzea da, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Bio-Osasun 8. Topaketen (8RNAEN) testuinguruan. Topaketak Iruñan izango dira, 2023ko urriaren 16an eta 17an.

Sari honen helburua Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko osasun-sektorean enpresa-garapena sustatzea da. Proiektuak, batez ere, berrikuntza-mailaren, hazteko ahalmenaren eta Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearekin duten loturaren arabera ebaluatuko dira.

2023an sariak bi kategoria izango ditu:


- **Biofarma**
- **Osasun teknologiak**

Hiru lurraldeetako eragileei laguntzeko prozedura honek 6.000 euroko aurrekontua du. Sari honen zuzkidura osoa AECTaren 2023rako aurrekontuan sartuta dago.



02 | LURRALDE HAUTAGARRIAK

Euroeskualdeko hiru lurraldeetako (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa) bazkideak hautagarriak dira.



03 | GAIAK

2023an bi kategoria definitu dira:

- Biofarma
- Osasun teknologiak

Enpresak sektore batean edo bietan aurkeztu ahal izango dira, bai Biofarman (farma, biotech, derma, kosmetika fisikoa) eta bai Osasun Teknologietan (gailu medikoak, ehealth, in vitro diagnostikoa), hautagaitza bereziak aurkeztuz.

Elkar hobeto ezagutzea eta networking sareak sortzea dira, oraindik ere, AECT Akitania Berria Euskadi Nafarroak Sari honen bidez zeharka jorratu nahi dituen erronkak.





04 | ERAKUNDE ONURADUNAK

Deialdia egin dezaketen erakunde onuradunak ETEak dira [Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako definizioaren arabera], egoitza soziala eta/edo fiskala lurralde hautagarrietan baldin badute, hau da, Akitania Berria eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Aldundian.

Pertsona fisikoak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

Hautagaiek, finalista izateko hautatuak izanez gero, enpresaren ordezkari baten presentzia ziurtatu beharko dute Bio-Osasuna Akitania Berria Euskadi Nafarroa (8RNAEN) 8. Topaketetan, Iruñean, 2023ko urriaren 17an egingo den pitching-saioan.

05 | ZENBATEKOA ETA FINANTZAZIOA

Sari honen zuzkidura orokorra 6.000 eurokoa da, 3000€ kategoria bakoitzerako (Biofarma eta Osasun Teknologiak).

06 | AURKEZPENA ETA EGUTEGIA

A · EGUTEGIA

Proiektuen deialdi honetako egutegia honako hau da:

2023ko irailaren 1a	Deialdia irekitzea
2023ko irailaren 22a	Deialdia ixtea
2023ko urriaren 6a	Pich saioetarako hautatu diren enpresak jakinaraztea
2023ko ekainaren 28a	Pitch-a Iruñean ospatuko diren Akitania Berria Euskadi Nafarroa Bio-Osasun 8. Topaketetan (8RNAEN) Enpresa irabazleak hautatzea

Euroeskualdearen webgunean eskaera egiteko epea zabalik dago 2023ko irailaren 1etik irailaren 22ra, 12:00etan. 2023ko irailaren 22ko 12:00etatik aurrera aurkeztutako hautagaitzak ez dira onartuko.

Sariaren antolatzaileek eskaera egiteko epea luzatzeko eskubidea izango dute.

Osatu gabeko edozein espedientek 7 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren egunetik zenbatzen hasita, espedientea osatzeko. Epe hori igaro eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, espedientea automatikoki atzera botako da.

B · HAUTAGAITZA ETA DOKUMENTUAK

Proiektuak formatu telematikoan aurkeztu behar dira Euroeskualdearen webgunean (www.euroregion-naen.eu), formulario elektronikoa betez eta dokumentu hau aurkeztuz.

– Pitch Deck

Proiektuen aurkezpena eta pitch decka euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez egin ahal izango dira. Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak ez ditu bere gain hartuko proiektuak aurkeztean sor daitezkeen kostuak (itzulpengintza, frankeoa, diseinu grafikoa, etab.).

Erregistratzeko prozesuaren amaieran, jaso izanaren adierazpen bat bidaliko da mezu elektronikoko gisa. Ez da onartzen paperezko espedienterik.

07 | EBALUAZIO-PROZEDURA

Proiektuen deialdira aurkeztutako espedienteen ebaluazioa fase ezberdinetan egingo da:

1. Hautagaitzak onartzeko irizpideak egiaztatzeko fasea.
2. Hautagaitzen aurre-hautaketa fasea. Urriaren 17an *pitch* bat egin ahal izango dute Iruñean, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Bio-Osasun 8. Topaketetan (8RNAEN).
3. Hautaketa Batzordeak *pitching*- eta hautaketa-fase bat izango du Iruñean, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Bio-Osasun 8. Topaketetan (8RNAEN).

08 | HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

A · AURRE-HAUTAKETAREN FASEA

Hautaketa aurreko batzordea erakunde hauetako bakoitzeko (**ALLIS-NA, NHC, BHC, Euroeskualdea eta CEIN**) ordezkariak osatuko dute, eta eskualde bakoitzeko 3 enpresa hautatuko ditu behar bezala aurkeztutako proiektu guztietatik.

Aurre-hautaketarako balorazio-irizpideak honako 100 puntu hauetan oinarrituko dira:

- ✓ Izaera berritzailea eta disruptiboa. 30 puntu
 - Mediku-beharra
 - Balio-proposamena
 - Konpetentzia-analisisa
- ✓ Hazkunde / lehiakortasun potentziala. 30 puntu
 - Negozio-eredua
 - Konpromisoa jasangarritasunarekin
 - Garapen-plana
 - Taldea
 - Erregistro-formularioko datu ekonomikoak (fakturazioa, balantzea, kontratazioa)
- ✓ Mugari esanguratsua azken 18 hilabeteetan. 20 puntu
 - Lorpenak
- ✓ Nazioarteko garapen estrategikoa. 20 puntu
 - Nazioarteko garapen-estrategia
 - Lankidetzatza

Hautaketa-batzordearen erabakia jakinaraziko zaie, bai hautatuak izan diren proiektuen arduradunei, bai ezetsiak izan direnei.



B · PITCHING FASEA

Hautatutako proiektuak profesionalaz eta jakitunez osatutako epaimahai baten aurrean (3 eta 6 pertsona artekoa) aurkeztuko dira 2023ko urriaren 17an Iruñean ospatuko diren Akitania Berria Euskadi Nafarroa Bio-Osasun 8. Topaketetan. Enpresako arduradun batek, gutxienez, bertan egon beharko du. Pitchak ezingo du 6 minutu baino gehiago iraun. Epaimahaikideek aukeratuko dituzte enpresa irabazleak. Aurkezpen hori formatu librean egin ahal izango da, gaztelaniaz, euskaraz edo frantsesez.

Enpresako ordezkariak aurkezpena bidali beharko dute, "EUROESKUALDE BIO-OSASUNA 2023" lehen sariaren pitch-saioan erabiltzeko, topaketaren antolakuntzak zehazten duen epean.

09 | SARIA EMATEA

Enpresa irabazlea bada, erakunde onuradunak agiri gehigarriak eman beharko ditu:

- IFK edo SIRET
- RIB edo SEPA (IBAN, BIC) formatuko banku-kontuaren ziurtagiria, banku-agintaritzak sinatua.

10 | KOMUNIKAZIOA

Erakunde onuradunek nahitaez sartu behar dituzte **AECT Akitania Berria Euskadi Nafarroa euroeskualdearen logotipoak**, bai eta lotutako edozein komunikazio-ekintzatan **saria lortu izanaren aipamena** ere.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Bio-Osasun 8. Topaketen (8RNAEN) erakunde antolatzaile eta laguntzaileek eskubidea izango dute hainbat komunikabideren bidez enpresa finalisten eta sarituen zerrenda argitaratzeko.

11 | AUZIAK

Oinarri horiek Frantziako legeriaren arabera arautu eta interpretatuko dira.

Akordio honen klausulak interpretatzearen edo aplikatzearen ondorioz auziren bat sortzen bada, alderdiak akordio hori adiskidetasunez konpontzen ahaleginduko dira. Adiskidetasunezko akordiorik ez badago, auzia lurralde-jurisdikzio eskudunaren mende jarriko da.

Dokumentu honen frantsesezko eta euskarazko bertsioak ere fede ematen du.

2023ko Euroeskualde BIO OSASUN 1. Saria aplikatzeak horren oinarriak onartzea Dakar.

12 | INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Deialdiaren dokumentu ofizialak eta hautagaitza bat prestatzeko garrantzitsuak diren beste elementu batzuk Euroeskualdearen webgunean kontsulta daitezke: www.euroregion-naen.eu:

Euroeskualdeak ezin du bermatu beste webgune batzuetatik deskargatutako dokumentuen baliozkotasuna.

Deialdiaren arduradunarekin jar zaitezke harremanetan: leyre.azcona@euroregion-naen.eu/
[+33 6 32 20 13 43](tel:+33632201343)